

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

EUSKARAREN ERABILPENA ZER- BITZU PUBLIKOETAN: PARISETIK UZTARITZERA

EGILEA:

Ione Josié

DATA:

2015/04/29



Aurkibidea

1. Sar Hitza.....	3
2. Euskararen erabilpena Ipar Euskal Herriko zerbitzu publikoetan: Jokabide egokien argazkia.....	3
3. Uztaritze: Aitzindari izan nahi duen herria.....	6
4. Lege gerizarik eta estatusik gabeko hizkuntza-politikak.....	7



1. Sar Hitzza

Nola lotu gaiari? Euskararen erabilera Ipar Euskal herriko zerbituz publikoetan gai korapilatsua izan daiteke. Egoera, herri batetik bestera oso desberdina, desorekatua da, eta Uztaritze aipatzeaz gain, beste herrien egoera ere aipatzea ezinbestekoa da.

Hortaz, tesutingurua edozein izanda ere, praktika onak agerian utzi dira, baina, era berean, hutsuneak eta mugak bistakoak geldituko dira, dudarik gabe.

1.1. Frantses Legedia laburki azaldua

Herriko Etxeak administrazio estrategikoak dira. Herriko Etxea herritarrengandik hurbilena den administrazioa baita eta, herritarren biziko gertakari nagusien lekukoa: sortzea, bozkatzeko eskubidea, ezkontza, heriotza...

Frantses Konstituzioaren 2. artikulua (1992) eta 75-1 artikulua (2008)

Konstituzioaren 2. artikulua dio “ *Errepublikaren hizkuntza frantsesa da*”. Artikulua, ofizialki ingelesaren kontra egiteko sortu bazen ere, errealitatean, tokiko hizkuntzen kontra egiteko erabili da. Frantziak hizkuntza ofizial bakarra onartzen du beraz, eta ondorioz, Frantzian ez dago beste hizkuntza komunitaterik, legez behintzat.

Hala eta guztiz ere, 2008an Frantses Konstituzioaren aldaketa zela eta, “eskualdeko hizkuntzen” aipamena erantsi zitzaion Frantses Konstituzioari, bere 75-1 artikuluan, zeinek “ *Eskualdeko hizkuntzak Frantziaren ondarearen parte dira*” gaineratzen zuen. 75-1 artikuluan egin aipua gure hizkuntzak “ Frantziako ondareztat” izendatzen baditu ere, aipua eransteak ez du eraginik izan, bigarren artikulua oraindik indarrean baita eta frantsesak Errepublikako hizkuntza bakarra izaten jarraituko du, bigarren artikulua argi uzten duen bezala.

Toubon legea (1994) eta euskararendako lege bat?

Konstituzioaren 2. artikulua sorrarak, segida logiko bat ukan du, frantsesa babesteko lege bat, Toubon legea, zeinek derrigortzen duen frantsesaren erabilera hainbat eremutan, administrazioan, hedabideetan, zerbitzuetan, irakaskuntzan... oro har, frantsesarekin egin dena ez da egin “eskualdeko hizkuntzekin”.

Ondorioz, estatusik eta legerik ez izateak borondatearen gainean oinarritu neurriak hartzera eramaten ditu Herriko Etxeak. Izan ere, derrigortasunik ez ezartzeak ez du debekurik ezartzen, eta gaur egun indarrean den lege koadroak hainbat neurri hartzeko aukera uzten die herriko etxeei, baina ez dituzte baliatzen. Beraz, delibero bitartez erabaki eraginkorrak hartu daitezke, gehienetan, hartzen ez diren erabakiak.

Ondorioz, euskararen sustapena eta kudeaketa ez arautzeak borondate politikoaren eta langileen ezagutza eta mobiltasioaren esku uzten ditu herritarrengan eragina duten harremanen hizkuntza trataera.

2. Euskararen erabilpena Ipar Euskal Herriko zerbitzu publikoetan: Jokabide egokien argazkia

Ipar euskal herriko herriko etxeetan, maila gorena duten erabakiak, deliberoak dira. Herriko Kontseiluak hartzen dituen erabakiak dira. Prozeduran, Estatu administrazioek, hots, prefetak, delibero horiek konstituzioarekin bat datozen edo ez egiaztatu behar du. Horrek eragiten ditu adibidez, uztaritzeko deliberoa atzera bota izana, edo Ikastolekin gertatu diren tirabirak. Beste desberdintasun bat da, egoera zibileko aktak (sortzeak etab) herriko etxean egiten direla eta ez auzitegian.



Bestalde, hartu erabakien obratzeko, planak behar dira, eta arlo horretan ere, asko dago egiteko. 2012tik hona, EEPk tokiko administrazioekin "Hobekuntza Kontratuak" lantzen ditu, epeak eta helburuak finkatuz.

Azkenik, hizkuntza-politika batek baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak beharrezkoak ditu: Aitzinkonduez gain, euskara teknikariak, langile euskaldunak beharrezkoak dira. Baliabideak egoki kudeatu behar dira. Langile bat harterakoan, euskalduna hartzen ez bada, gero formakuntzara igorri beharko da, eta horrek, denbora eta dirua xahutzea dakar.

2.2. Erabaki orokorrak

Ipar Euskal herrian, euskararen aldeko deliberoak hartzen dira, hizkuntza-paisaian euskararen presentzia bermatzeko, komunikazio ofizialean eta komunikazio euskarrietan euskararen presentzia bermatzeko, langileen formakuntza plangintzatzeko, langileak kontratatzeako orduan. Delibero horiek oso puntualak izan daitezke eta gehienetan orokorrak.

2.3. Baliabideak

Euskara zerbitzuen antolaketa

Euskara zerbitzuak herriko etxeaetan bertan izateak, planaren jarraipenean eragina duela erran daiteke. Miarritze, Baiona eta Hendaia herriko etxeek beren euskara zerbitzu edo bulego propioa dute, Hirigunea, Errobi-aturre, Hazparne, Xiberoa, Baxe-Nafarroak eta Errobiko elkargoen lurraldetan biltzen diren herriek aldiz, elkargoen euskara zerbitzua dute. Zerbitzu horiek, beren aurrekonde propioa kudeatzen dute (Miarritze), beste batzuetan euskarari aurrekonde orokor bat esleitzen zaio, baina, gehienetan, proiektuen arabera aurrekondua bozkutzen da.

Aitzinkonduek

Euskarari esleitzen zaion dirutza konduan hartzen badugu, funtzionamendu orokorraren %1a baino apalagoa da, gehienetan.

Euskarari esleitzen zaiona, batez ere, dirulaguntzen eta formakuntzen arloan kokatzen da. Baina, Miarritzen adibidez, dirulaguntzen euskara irizpideak finkatu dira, ez elkarte guzietan, baina elkarte nagusietan, jendetza zabal bat hunkitzen dutenekin.

Formakuntzak

Langileen formakuntzak EEP, Herriko Etxe eta Herri elkargoen artean diruztatzen dira, gaur egun, funtzionarioen formakuntzetara dedikatzen den kutzak, CNFPT-ek beregain ez baitu hartzen. Formakuntzak borondatearen gainean oinarritzen dira, langileek ikasi nahi ez badute, beren lanpostua betetzeko estrategikoa baldin bada ere, ezin ditugu derrigortu. Ondorioz, noiznahi gelditu ditzakete formakuntza horiek.

Hala ere, herri eredugarriak baditugu, Itsasu eta Sarako herriko etxeko langileekin harreman guziak euskaraz egin daitezke, harreran, hirigintzan... Herrian, oso gutti dira oraindik euskaldunak ez diren langileak, eta horiek ere euskalduntzeko plana abiatu da, lan denboran eta herriko etxeak diruztaturik, noski. Lehen hitza beti euskaraz egiten dute.

AEK-k mailakatzen ditu langileak, ondorioz, badakigu lanpostuaren arabera zer maila ukan behar duten, aitzin pauso bat da guretzat, ezen eta, gaur egun ez daiteke hizkuntza- eskakizunik ezarri langilea kontratatzerakoan.

Kontratazioa

Gaur egun, kontratatzerakoan euskalduna galdetzea "diskriminatzailea" da. Baina, baliabideak egoki kudeatzen ahal dira, langileak "exigée" ez bada ezartzen "langue basque souhaitée" ezartzen da.

Kontratazioan euskara ez baldin bada irizpide bat, hizkuntza- gaitasunen eskaria ez daiteke egin. Gerta daiteke, kompetentzia berdinarendako langile euskalduna hartuko dela erratea, baina gero ez frogarik pasaraztea hizkuntza-maila ezagutzeko. Bi langileen artean, euskalduna artzako aukera delarik, gerta daiteke, euskalduna ez dena hartzea, ez baitu arras titulu berdina.



2.4. Plangintzak

Herri gutik osatzen ditu plangintza zehatzak, epe eta helburu zehatzekin. Hirigunean edota Miarritzen hizkuntza-politika egitasmoa aurkeztu da, baina, herri gehienetan, planak izan beharrean “neurri sortak” ditugu.

Haatik, 2012tik goiti, EEPk herrien laguntza dispositibo bat abian ezarri du euskararen erabilpenagartzeko herriko etxeetan: Hobekuntza kontratuak. Helburua lehenetsiko diren zerbitzuak, gehienetan publikoarekin harremanetan direnak, autonomo bilakatzea epe jakin baten buruan.

- 4 ardatz jorratzen ditu: urte anitzeko formakuntza plan baten zehaztea, dokumentu elebidunen zerrendatzea (publikoari zuzendutakoak, bi hizkuntzak ber dokumentuan), zerbitzuaren antolaketa elebidunaren “jardunbidea” zehaztea zerbitziburua, langile euskaldun eta euskara teknikarien artean, seinaletika.
- Diagnostika bat egiten da (langileen hizkuntza gaitasunak, zerbitzuen postu fitxak eta dokumentuak zerrendatzea)
- Urteko ibilbide orria definitzen da
- Eta noski, dagozkion baliabideak: gastuak Herriko etxe, EEP eta elkargoen artean ordaintzen dira
- **7 esperimentazio mementuan: Hazparne, Itsasu, Maule, Hendaia, Hiriburua, Senpere Garazi. Mmentuan 3 izenpetu dira (Hazparne, Maule, Itsasu) eta besteak bidean**
- **Beste herri batzuk erantsi zaizkie, hasieran aurreikusi herriei: Kanbo, Uztaritze eta Baigorri**
- Epeak dituen Hizkuntza-politika planifikatu bat bideratzen du, Erabilera planak lehentasunezkoak diren zerbitzuak definitu ditu.

Kanpo komunikazioa

kontseiluetako gai-ordenak, paper-buruak, zigiluak, berripaperak, eskuorriak, deliberoen laburpenak edo deliberoak osoki , gutunak, gomitak...euskaraz ere jasotzen dira, nahiz eta ez den beti lehenetsia.

Hobekuntza kontratuetan bilduko diren ereduak euskarriak euskaratuko dira, ondorioz, euskarri horiek herri guziren eskura ezarriko dira.

Hizkuntza-paisaia

Hizkuntza-paisaia euskaratzeko deliberoa hartzen da nahiko errexki. , Baina karriken izenei dagokionez adibidez, herri batetik bestera egiteko moldeak desberdinak dira (euskara hutsean, euskara lehenetsiz, frantsesa hutsean, frantsesa lehenetsiz...). Desoreka horiek herrien artean ikusten dira edota herri berean. ,

Hezkuntza 0-3 urte

EEP-k, LEHA dispositiboa abian ezarri du, haurtzaindegietan euskarazko harrera bermatzeko. Haur gazteen barrea kolektiboen zerbitzuen eskaintza egituratzeko asmoz, Baionako FLK (CAF), EEP, Pirinio-Atlantikoetako Kontseilu Orokorra eta Hego Akitaniako Laborantza Mutualitate Soziala (LMS-MSA), harreraren kalitatea bermatzen eta denbora berean euskararen transmisio prozesua laguntzen duen labelizatze dispositibo bat eratzten jardun dira, harrera eskaintza hau argi izan dadin bai gurasoentzat baita euskarazko harrera proposatu nahi duten eragileentzat ere.

Dispositibo horrek 3 maila ditu: A, B, C

- A: harrera elebiduna aukeran, haurra inguramen elebidun batean ibilki da, langileak euskaraz edo frantsesez ari zaizkio gurasoen hautuaren arabera
- B: Euskarazko harrera, murgiltzea
- C: harrera elebiduna aukeran, haurra inguramen elebidun batean ibilki da, langileen erdia ari zaio euskaraz eta beste erdia frantsesez

Eragile pribatuak

Eragile pribatuei buruz lan gutti egiten da, eta gehienetan EEPk lotu hitzarmenak dira. Hala ere azpimarratzekoa da Xiberoko Herri elkargoak euskara teknikari-garaztaile bat kontratatatu duela lan ildo hori bideratzeko



Motibazioa

Bestalde, herritarrak euskalduntzeko bekak eskaintzen dira, Errobi eta xiberoko elkargoetan

3. Uztaritze: Aitzindari izan nahi duen herria

Uztaritzeko herria Errobiko lurraldean kokatua da. Errobi 11 herriz osatua da, Uztaritze, Kanbo, Itsasu, Basusarri, Arrangoitze, Luhuso, Ezpeleta, Larresoro, Haltsu, jatsu, Zuraide. Izaera desberdineko herriak ditugu. 28.000 biztanle dira, eta azken inkesta soizolinguistikoaren arabera populakuntzaren %23,9a da euskalduna. Desoreka nabarmena da, batetik herrien artean, eta bestetik, euskararen ezagutza eta erabileraren artean. Uztaritzeri dagokionez, neurri aipagarrienak agerian utziko dira, hau da, talde berriak bidean ezarri dituenak:

3.1. Ofizialtasunaren bidean

Uztaritze tirabira juridiko baten erdian

Uztaritzeko herriko etxeak hauteskundeetan hitzeman berehala betetzeko xedea zuela erakutsi du. Izan ere, 2014ko martxoan hauteskundeak irabazi eta talde berria sartzen zen Herriko Etxean. Hortik guttira, euskara ofizial izendatzen zuen.

Izan ere, 2014ko ekainaren 27an erabaki zuen euskara frantsesarekin batera hizkuntza ofizial izendatzea :

« Euskara, gure herriko eta lurralde honi (Euskal Herria) izena ematen dion hizkuntza dela, baina euskaldunen hizkuntza eskubideak, gaur arte, ezagupen ofizialik gabe daudela kontuan harturik, Herriko biltzarrak azalpena entzun eta eztabaidatu ondoren, euskara herriko hizkuntza ofiziala izendatzen du frantsesaren hein berean ».

Estatu zerbitzuen erantzuna luze gabe iritsi zen. Patrick Dallennes Baionako suprefetak berehala iragarri zuen guttiz legearen kontrako erabakia zela eta salaketa ezarri zuen herriko etxearen erabakiaren aurka eta Pierre Andre Durand prefetak ezarri zuen salaketa, uztailearen 25ean.

Abuztuan, auzitegi Administratiboak baliorik gabe utzi zuen herriko etxearen erabakia, behin-behinekoz eta 2015eko urtarrilan, Paueko Auzitegiak atzera bota zuen euskara hizkuntza ofizial izendatzeko herriko etxeak hartu zuen erabakia. Euskara ofizial izendatuz, herriko etxeak frantsesa baztertzeko zuela argudiatu zuten epaiketan, erabakiaren kontra. Uztaritzeko herriak, aldiz, argudiatu zuen egunero praktikan egiten ari direna ofizial bihurtu nahi izan zutela.

Baina, bide hori hetsia baldin bada ere, herriko etxeak izaera ofiziala, praktikan, hartu erabaki eta neurrien bidez obratzen du. Eta erran behar da, gaur egun, euskarak zentralitatea hartu duela Uztaritzen, eta hautesien borondateak eragin handia ukan duela herritar eta langileen bizian.

Erabaki orokorrak

Frantses administrazioaren kulturen, ez da ordenantzen baliokiderik. Baina, arauen beharrari aurre giteko, deliberoak hartu ditu Uztaritzeko herriak. Deliberoekin batera, barne-araudialantzen ari da, arlokako irizpideak finkatzeko gisan. Ondorioz, lehen barne nota bat zabaldu da, herriko etxearen komunikazioa arautzeko. Eta aitortu behar da Errobi Herri Elkargoko euskara zerbitzuak jasotzen dituen itzulpen eskariak begiratzeko, oso eraginkorra izan dela. Bikoiztu baino gehiago egin da, irailetik hona jasotzen den galdea.



3.2. Langileak

Euskara zerbitzua: Errobi lurraldean, Errobi Herri Elkargoko euskara zerbitzuak du kudeatzen hizkuntza-politika. Herrien zerbitzurako da. Ondorioz, euskara zerbitzu bat bada, Herri elkargoan, 1,5 lanposturekin, baina Uztaritzek ez du euskara teknikari propiorik. Bestalde, euskara erreferente izateko langileak izendatu ditu. Haatik, langile batzuk euskara erreferente izendatuak izan dira.

Formakuntza plana: Gaur egun 4 langilek euskara ikasten dute. Baina, Hobekuntza kontratua izenpetze bidean da eta galdazkatu 70 bat langileren artean, 40 batek euskara ikasteko nahia agertu du. Baliabide ekonomikoak eta zerbitzuen antolaketa konduan hartuz mementuan lanpostu estrategikoak betetzen dituzten langileak aurreikusi dira 2016an formakuntzan hasteko.

3.3. Plangintzak: Aitzineko taldearen oinordekotza eta Hobekuntza kontratua

Hobekuntza kontratua: bidean da, epeak, eta zerbitzuak lehenetsi dira, epe jakin baterako formakuntza plana definitzen ari da, euskaratzekoak diren eredu zko dokumentuak bilduko dira...

Kanpo eta barne komunikazioa: Sartetik goiti, euskara zerbitzuak Uztaritzereendako egiten dituen itzulpenen kopurua azkarki emendatu da. Izan ere, zerbitzu guzietara barne nota bat helarazi zaie dokumentu guziak elebitan agertu behar direla zehazten duena, bi hizkuntzen arteko trataera berdina behar dela eta zutabeetan agertu behar direla. Eragin handikoa izan da.

Eragile pribatuak: Herriko etxeak hartu duen lehen neurrietariko bat BAI EUSKARARI ziurtagiriarekin lan egitea izan, da eta gaur egun 33 ziurtagiridun badira Uztaritzen.

Kultur ekintzak: UZTAHITZA: Aurten lehen aldiz, Uztahitza deitu euskararen egunak antolatu dira Uztaritzen. Erran behar da, Errobi lurraldean administrazio batek antolatzen dituen lehenak direla. Aste batez beraz, Uztaritzarrek hainbat ekimen jaso ahal izan dituzte euskaraz.

4. Lege gerizarik eta estatusik gabeko hizkuntza-politikak

Lehenik eta behin, estatus eta lege gabeziak, hizkuntza-politikaren definizioa eta obratzea hautetsien borondatearen gainean eta langileen motibazioaren gainean uzten du. Horrek dakarren hauskortasun guziarekin.

Bestalde, hizkuntza-politika partziala, desorekatua da egiten dena, herri guziek ez dituzte neurri berak hartzen, koherentzia eskasa ikusten da oro har.

Azkenik, estatuaren esku sartzeak eta administrazio nagusiak oztopoak sortu ditzake.

Baina, hala eta guztiz ere, aukera batzuk eskaintzen dira, baliatzen ez diren aukerak.

